



Arartekoren 2020S-951-20 Ebazpena, 2020ko abenduaren 10ekoa, horren bidez Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari iradokitzen zaio baloratu dezala zailtasun ekonomikoak dituzten pertsonen maskarak erabiltzeko betebeharra behar bezala betetzea erraztuko duen neurriren bat hartzeko aukera.

Aurrekariak

Arartekoak hainbat kexa jaso ditu SARS-CoV-2k sortutako osasun-krisiari aurre egiteko legez ezarritako maskarak erabiltzeak pertsona batzuentzat dakarren gastu gehigarriari buruz.

Kexak izapidetzeko onartu ondoren, Arartekoak Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari galdetu dio ea baloratu duen edo baloratzen ari den zailtasun ekonomikoak dituzten pertsonen maskarak erosteagatik ezarritako prezioa baino txikiagoa ordaindu ahal izateko neurriren bat hartzeko aukera.

Sailak erakunde honi jakinarazi dionez Eusko Jaurlaritzako Lehendakariak, SARS-CoV-2ri aurre egiteko autonomietako presidenteeekin egin ziren asteroko bileretan behin baino gehiagotan azaldu zuen maskara kirurgikoen kostuari buruz zuen kezka eta Gobernuak presidenteari proposatu zion maskara higienikoen BEZaren salbuespena balioetsi zezala koordainketa farmazeutikora jotzen duten pertsonentzat.

Kontuan hartuta Lehendakariak proposatutako neurria hartzea Estatuaren eskumena dela eta, halaber, kontuan hartuta sailak emandako erantzunean ez dela aipatzen bere eskumen-eremuaren barruan neurriren bat hartzeko aukera, Arartekoak berriz jo zuen Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarengana eta, oraingoan, galdetu zion ea bere kabuz, arlo horren barruan, gai horri buruzko neurriren bat hartzeko aukera baloratu den edo horri buruzko neurriren bat aztertzen ari den. Eta jasotako erantzuna ezezkoa izan da.

Gogoetak

1. Lehendakariaren azaroaren 6ko 38/2020 Dekretuaren bidez, aldatu egiten da urriaren 26ko 36/2020 Dekretua, alarma-egoeraren adierazpenaren eremuan egoera epidemiologikoen bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-19k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko prebentzio-neurri espezifikoak ezartzen dituen.





Horren bigarren artikuluko lehenengo paragrafoak beste idazkera bat ematen die 1. eta 2. lerrokaidei, kautela- eta babes-neurriei buruzko 1. atalean maskara erabiltzeko derrigortasunari buruzkoei, eta honela geratzen da idatzita:

«Maskarak erabiltzeko derrigortasuna.

Sei urtetik gorako pertsonak nahitaez erabili beharko dute maskara, pertsonen arteko distantzia edozein dela ere, bai bide publikoan eta aire zabaleko espazioetan daudenean, bai erabilera publikoko espazio itxietan daudenean edo jendearentzat irekita daudenean, bai espazio berean beste pertsona batzuekin elkartu ahal direnean, Prebentzio-, geldiarazte- eta koordinazio-neurri urgenteen ekainaren 9ko 21/2020 Errege Lege Dekretuaren 6.2 artikuluan aurreikusitako kasuetan izan ezik. Arrazoi medikoengatik maskarak erabiltzearen salbuespena ziurtagiri mediko ofizialaren bidez egiaztatu beharko da.

Lantokietan nahitaezkoa izango da maskara erabiltzea. Betebehar hori ez da eskatuko lan-tipologia edo -baldintza bereziak kontuan hartuta, laneko osasun-zerbitzuek ez erabiltzea gomendatzen duten kasuetan. Nolanahi ere, 1,5 metroko segurtasun-distantzia gorde beharko da.»

Beste alde batetik, Dekretuak, bere seigarren artikuluan, honako hau ezartzen du:

Beti ere, igerilekuetan izan ezik, banakako jarduera fisikoa edo kirola maskaraz egin beharko da hiri-inguruneetan.»

Hau da, oro har, aurreikusitako salbuespenetan izan ezik, nahitaezkoa da maskarak erabiltzea, pertsonen arteko distantzia edozein dela ere, sei urtetik gorako pertsona guztientzat, hala esparru itxietan nola publikoarentzat irekita dauden lekuetan eta baita aire zabaleko espazioetan ere, toki horietan beste pertsona batzuekin egon behar denean, bai eta hiri-inguruetan jarduera fisikoa edo kirola egiten denean ere.

2. Arartekoak badaki zein garrantzitsua den pertsona guztiek maskara egokiak erabiltzea birusaren hedapena gelditzeko. Baina, era berean, erakunde honetara jo duten pertsonak bezala, uste du, bizi dugun osasun-arloaren ondoriozko krisi ekonomikoaren aurrean nahitaez erabili behar izateak gastu gehigarria dakarrela eta horrek kalte egin diezaiokeela ekonomikoki ahulenak diren pertsonen ahalmen ekonomikoari.





Erakunde honen ustez, halaber, aipatutako gastuaren ondorioz gerta daiteke jendeak maskarak erosteari uztea eta babes-neurri horren erabilera estentsiboan atzera egitea edo, hala denean, atzez egitea modu egokian erabiltzeari dagokionez, horrek ekarriko lituzkeen ondorio larriekin bai ekonomikoki egoera ahulean dauden pertsonentzat, bai gainerako herritarrentzat; izan ere, ez da oharkabea pasatu behar kasu askotan gai ekonomikoak direla pertsona asko maskaren denbora erabilgarria luzatzera eramaten dituztenak horrela elementu horien babesteko eraginkortasuna arriskuan jarriz.

3. Ebazpen honen aurrekarietan adierazi dugun bezala, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari helarazi diogu erakunde honek gai horri buruz duen kezka eta haren ordezkari nagusiak jakinarazi digu Lehendakariak Espainiako Gobernuko presidenteari proposatu ziola balioestea ea salbuetsi zezakeen maskara higienikoen BEZa botiken koordainketara jotzen duten pertsonentzat.

Hau da, Lehendakariak Estatuko Administrazioari proposatu zion maskarek zuzenbide publikoko erakundeek, klinikoez edo ospitaleek edo izaera sozialeko erakunde pribatuek jasotzen dituzten maskarek ematen zaien tratamendu bera ematea, hau da, ekonomia eta enplegua babesteko premiazko neurri osagarriari buruzko apirilaren 21eko 15/2020 Errege Dekretu-legeak xedatzen duen bezala. Arau horrek, besteak beste, osasun-krisiaren ondorioz zero BEZ izatera igaro diren 41 produktu-multzoren zerrenda jasotzen du.

Interesgarria da aipatzea proposamena egin zen unean, OCUK emandako datuen arabera, maskara erabiltzea derrigorrezkoa izatearen ondorioz pertsona bakoitzak hilean 24 euro ordaindu behar zituen maskara kirurgikoetan, asteburuak eta lanaz kanpoko aldiak kontuan hartu gabe. Hortik ondoriozta daiteke lau kide dituen familia-nukleo batek 120 euro inguru gastatuko dituela hilean maskara kirurgikoetan. Eta, babes handiagoko maskarak aukeratuz gero, kopuru hori 266 eurokoa izan daitekeela hileko.

4. Erakunde honek hizpide ditugun kexetan planteatutako gaiaren inguruan egindako esku hartzeen ondoren, zergen arlo horretan enpresa-kaudimena eta energia-sektorea laguntzeko premiazko neurriari buruzko azaroaren 17ko 34/2020 Errege Dekretu-legea onartu da. Testu horrek, besteak beste, xedatzen du indarrean jartzen denetik eta 2021eko abenduaren 31ra arteko ondorioekin, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren %4ko tasa aplikatuko zaiela Sendagaien Prezioen Ministerio arteko Batzordearen 2020ko azaroaren 12ko Erabakian aipatzen diren erabili eta botatzeko maskara kirurgikoen erkidego barruko entregei, inportazioei eta eskuraketei.





Hau da, pandemia luzatzearen ondorioz biztanleriak erabilera orokorra izan behar duenez, arau honen bidez %21etik %4ra jaisten da, aldi baterako, erabili eta botatzeko maskara kirurgikoen erkidego barruko entzegei, inportazioei eta eskuratzeei aplikatu beharreko BEZaren zerga-tasa.

Hala ere, nahiz eta Arartekoak positibotzat jotzen duen erabili eta botatzeko maskara kirurgikoen BEZa murrizteko neurri hori hartzea, %21etik %4ra igaroz, bigarren kutsatze-boladaren ondorioz sortutako arazo ekonomiko berrien aurrean erakunde honek bere buruari galdetzen dio ea neurri hori nahikoa izango den erakunde honetara etorri diren pertsonen planteatutako arazoa konpontzeko, baldin eta beste jarduketa batzuekin batera ez badao.

Izan ere, iragarritako neurria bakarrik aplika dakioke maskara kirurgikoen gehieneko prezioari. Eta, gainera, Caritas erakundeak emandako datuen arabera, egungo osasun-krisiaren eta krisi sozialaren ondorioz hau guztia hasi aurretik jada egoera txarrean zeuden eta euren bizitza behar bezala garatzeko diru-sarrera nahikorik ez zuen EAEko biztanleen %15,2aren kasuan areagotu eta biderkatu egingo da bazterketa-egoera, bazterketa horren dimentsio guztietan (diru-sarrerak, enplegua, etxebizitza, laguntza-sarea, etab.). Hori ez ezik, 2008ko krisiaren ondorioz gizarte-bazterkeria alde batera utzi zuten pertsonak berriz ere behin betiko bazterketa-egoerara itzuliko dira eta hori, argi eta garbi, saihestu egin behar da.

Gainera, erakunde berak emandako datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan osasun-krisiaren hasierako hilabeteetan Caritas erakundeak artatu zituen pertsonen heren batek diru-sarrerak galdu zituen pandemiaren ondorioz, lanik gabe edo langabezian geratu zirelako.

5. Hizpide dugun gaiari dagokionez, interesgarria da aipatzea Nazio Batuen idazkari nagusiak, ["COVID-19a hiri-munduan"](#) politiken dokumentuan honakoa gomendatzen duela: "ahalegina egitea baldintza berdinetan iristeko osasunaren arloko hornikuntzetara, instalazioetara eta baliabideetara, eta laguntza ematea hiriguneetako txiroei eta talde kalteberei maskarak banatuz, probak eginez eta tratamendua doan edo prezio baxuan erraztuz. "

Ildo beretik, Gizarte Eskubideen Europako Batzordeak ["Osasunerako eskubideari buruzko interpretazio-adierazpena"](#) egin zuen, Espainiak berretsitu zuen Gutun Sozialaren arabera. Adierazpen horretan honakoa esaten da: "*Estatu alderdiek (Gutun Soziala) pandemia baten beharrezkoak diren larrialdi-neurri guztiak hartu behar dituzte. Horren barruan birusaren hedapena*





prebenitzeko eta mugatzeko neurriak behar bezala aplikatzea sartzen da, hau da, Covid 19aren oraingo krisialdian bezala, besteak beste testak eta miaketak egitea, distantzia fisikoa eta isolamenduak zaintzea, eta maskara egokiak eta desinfektatzaileak ematea (...)."

6. Arartekoaren 4/2020 Gomendio Orokorrean adierazi genuen bezala, *"Herritarrenganako arreta indartzeko beharra, administrazio publikoekiko harremanetan dituzten eskubideak baliatzean kalteak saihesteko eta bazterkeria digitalaren kontra borrokatzeko neurriak hartzeko larrialdi egoeretan, Covid-19aren pandemiaren ondoriozko egoeretan, besteak beste."*, erakunde honek egiaztatu du euskal administrazio publikoek hainbat jarduera egin dituztela koronabirusaren progresioaren ondoriozko osasun-, ekonomia- eta gizarte-krisiaren emaitzak eta eraginak arintzeko. Era berean, egiaztatu du Euskadin birusak eragindako lehen kutsapenetatik arauak, jarraibideak eta gomendioak onetsi direla birusaren ondorioak arintzeko.

Gomendio horretan ere adierazi genuenez, jakin badakigu, halaber, euskal administrazio publikoek neurri eta programa berriak ezarri dituztela aparteko egoera larri horrek eragindako gizarte- eta ekonomia-sektoreei laguntzeko, besteak beste pandemiaren ondorioak geldiarazteko behar diren osasun-eskakizunak betetzea errazteko.

Baina, lehen ere esan dugun bezala, gaur egun ez dago jasota autonomia-erkidegoko biztanle guztiek maskarak behar bezala erabiltzeko betebeharra betetzea errazteko laguntzarik garatu denik edo garatuko denik.

Horregatik, beste eremu batzuetan egin daitezkeen beste jarduketa batzuk alde batera utzi gabe eta betebeharrak hori osasun-arlokoa denez, Arartekoa sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11.b) artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, Arartekoaren erakunde honek Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarengana jotzen du eta honako iradokizun hau egiten dio:

IRADOKIZUNA

Sail horren ekimenez edo beste sail batzuekin koordinatuta neurri osagarriren bat hartzeko aukera baloratzea, zailtasun ekonomikoak dituzten pertsonen maskarak erabiltzeko betebeharra behar bezala betetzea errazteko.

